Espediente mota: Administrazino kontratazinoa
Kontratua: Udalaren funtzionamendu eta lan antolaketa Kudeaketa Aurreratuaren ereduaren arabera egituratzeko laguntza teknikoaren Zerbitzu kontratua

UDALAREN FUNTZIONAMENDU ETA LAN ANTOLAKETA KUDEAKETA PUBLIKO AURRERATUAREN EREDUAREN ARABERA EZARTZEKO LAGUNTZA TEKNIKOAREN ZERBITZU KONTRATUA

BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAK

Prozedura ireki sinplifikatuaren bidezko esleipena

AURREKARIAK:

Bermeoko Udala, azken hamarkadan, kudeaketa arloan erakunde aurreratuen dinamika eta funtzionamenduaren arabera lanean ari da, eredu desberdinen arabera hobekuntza zikloak aplikatu, praktika on ugari ezarri eta helburu zein proiektuen arabera lan talde tekniko politikoak martxan dituela.

Momentu honetan, Zuzendaritza tekniko politiko bat egituraturik dauka eta hiru koordinazio gunetan udal guztiko jarduna sailkatua, bi hilero, udal guztiko helburuen jarraipena egiten da.

Horrekin batera bere kudeaketa sistema guztia ELOGE ereduaren arabera neurtu eta 2018an Europako saria eskuratu zuen.

Udalak bere osotasunean, ikuspegi bateratu batekin lan egiten ari den momentu honetan, teknologi berriek zein araudi berrien betekizunek, administrazioa orokorrean lan dinamika eraginkorragoetara bultzatzen duten momentu honetan, eta eraldaketa zein erronka handien garai honetan, udalak, eredu baten arabera, udal abiadura eta aurrerapen maila desberdinak identifikatu eta bere jarduna **Kudeaketa (Publiko) Aurreratuaren ereduaren** arabera finkatzen hasteko beharrizana ikusten du, ELOGE ereduaren printzipioak uztartu, hurrengo urteetako norabidea finkatu, hobetzeko aukerak dituzten elementuak behar bezala zehaztu eta hobekuntzarako ezinbestekoa den jarraipen lana modu zorrotzean, helburu eta lorpenetara bideratuta zein eraginkortasuna ardatz bilakatuta, bideratzen hasteko udal mailan.

1.- KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratu honen helburua honakoa da:

Kudeaketa Aurreratuaren eredua oinarri hartuta kudeaketa bateratu bezain eraginkor bat ezartzea Bermeoko Udalean.

Horren baitan:

1.- DIAGONOSTIKOA:

CSV: 07E50007029D00H6M5B9Y4R4F0

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E50007029D00H6M5B9Y4R4F0

Sinadurea eta datea
NAIARA ANASAGASTI MEÑAKA-ANTOLAKUNTZA TEKNIKARIA - 16/06/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/06/2021 13:47:44

EXPEDIENTE :: 2019KON_IS_0019
Datea: 15/11/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Udalaren gaur egungo egoeraren diagnostiko zehatza landuko da: Udaleko lan dinamiken, egindako aurrerapausoen, gaur egungo kudeaketa sistemen, praktika onen, sarien eta ziurtagirien azterketa egin eta eredu honen araberako auto-ebaluaketa jorratuta. Elementu bakoitzean, Udalaren egoera zein den ezagutzeko beharrezko ikusten diren eragile, sail eta arduradunekin lanketa egingo da. Horretarako, udalak dituen kudeaketarako egiturak erabiliko dira: Herritarrak, Erakunde eta Lurraldeko Koordinazio guneak, Kudeaketa Taldea zein Zuzendaritza Batzordea; Antolakuntzako teknikariak koordinatuko du lan hau. Gai konkreturen bat (ereduaren elementu zehatz bat) sakontzeko, beharrezko balitz, lan taldeak egituratuko lirateke, beti be diagnostiko bateratu eta osotu bat izateko edo beharrezko ikusten den eremuetan, talde adituarekin aritzeko.

2.- KPAEaren ezarpenerako BI URTEKO PLAN BAT ONARTU:

PDCA edo hobekuntza ziklo oso bat udalean aplikagarria izan dadin eta emaitzak aztertzeko aukera izan dagigun, bi urtetan landuko den plan bat garatuko da, hasierako diagnostikoa oinarri hartuta.
Plan honetan, lortu beharreko helburuak kudeaketa mailan jasota utziko dira, urtero ekin beharreko ekintzak, epeak, erantzuleak, adierazleak eta ebaluaketarako modu zein egiturak behar bezala zehaztuta.

2.1 PROPOSAMENA/ ZIRRIBORROA: Udalaren diagnostikoa oinarri hartuta eta garapen maila desberdinak ezagututa elementu bakoitzeko, hurrengo urte bietan garatu beharreko ekintza lerroen proposamena aurkeztuko da, horietariko bakoitzean lortu beharreko erronkak zein ekintza zehatzen garapena islatuta.

2.2..- PLANGINTZAREN ZEHAZTAPENA: Plangintza lankidetzan eratzeko eta zehazteko, egindako proposamena, Kudeaketa taldeak Zuzendaritza Taldearekin elkar lanean, landu, garatu eta egin beharreko aldaketa zein zuzenketak burutuko zaizkio, udal ikuspegi bateratu batekin eta helburu estrategikoak zein legealdi plana oinarri hartuta, garapenerako beharrezko diren baliabideekin behar bezala bermaturik zehazteko eta udalak ELOGE ereduaren arabera egindako lana kudeaketa aurreratuaren eredura uztartuta uzteko, ekintza lerro horiek lan dinamika baten bilduta gelditu daitezen.

2.3.- PLANGINTZAREN HEDAPEN ETA OSAKETA: Zehaztutako plangintza, sailez sail hedatu eta horrek udaleko sail, zerbitzu, langile, lan dinamika eta funtzionamenduan duen eraginaz jabetzeko, bilerak antolatu informazio guztiaren hedapena egin, ekarpenak jaso eta beharrizanak identifikatuko dira osotu edo aldatu beharrekoak zehaztuta. Plangintza udal eragileek eratutako baliabide bat izan behar da, lankidetzan eta ahots guztiak entzunda eratzeko alde batetik eta horren exekuziorako beharrezko konpromiso maila izateko bestetik.

2.4.- PLANGINTZA ONARTU: Koordinazio gune guztietan honen aurkezpena eginda, Zuzendaritza Batzordeak aztertu eta onetsita utziko da, bi urtetan udalaren kudeaketa, eredu honen araberakoa izan dadin, edo izateko bideraturik, gelditu dadin.

3.- LANAREN GAUZAPENA: Udalak Kudeaketa (Publiko) aurreratuaren eredua udalaren funtzionatzeko zein udala kudeatzeko eredu moduan hartuta:
3.1.- LAGUNTZA TEKNIKOA eskainiko da eredu honetan adituak diren profesionalen aholkularitza eta laguntza bideratuta.

CSV: 07E50007029D00H6M5B9Y4R4F0

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E50007029D00H6M5B9Y4R4F0

Sinadurea eta datea
NAIARA ANASAGASTI MEÑAKA-ANTOLAKUNTZA TEKNIKARIA - 16/06/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/06/2021 13:47:44

EXPEDIENTE :: 2019KON_IS_0019
Datea: 15/11/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

3.2.- FORMAZIOA: Beharrezko eremuak bereganatu eta kudeaketan beharrezkoa den ezagutza barneratzeko formazioa eskainiko da. Egiten ikasi formulak oinarri hartuta.
3.3.- KOMUNIKAZIO – HEDAPEN LANA: Kudeaketa arloan Udala egiten ari den garapena aldiro aurkeztu beharko da, horren inguruan dauden zailtasun zein aurrerapausoak identifikatu, udal mailan dagokion hedapena egin eta gardentasun irizpideen arabera publiko egiten joateko.
3.4.- KUDEAKETARAKO BALIABIDEAK: Eraldaketa hau sostengarria izan dadin epe ertain eta luzera, beharrezko baliabide tekniko - teknologikoetan aholkularitza eskainiko da, hobekuntzak, berrikuntzak eta exekutatzen diren aldaketak, udal kudeaketa ekonomikoarekin bat egiteaz gain, egiteko modu berrietan erraztasunak eskaini, kudeaketa arin bat eskaini eta bilerak, hausnarketak, azterketa zein jarraipen lanak, datu guztiak aztertzeko aukera izanda, erabakietan eta ekintza lerro berrietan oinarria izan dadin.

2.- EGIN BEHARREKO LANAREN DESKRIBAPEN ZEHATZA:

1.- LAN EREMUAK:

- Udal sail eta zerbitzu guztiekin, beharrezko bilerak
- Kudeaketa taldearekin plangintza, ebaluazio eta jarraipen bilerak
- Hiru hilero egoera eta prozesuaren garapen mailari buruzko txostenak, lorpen maila ezagutu eta aldatu, egokitu zein zuzendu beharreko ekintzak proposatuta.
- 100 ordu urtero prestakuntzarako, ikuspegi bikoitz batekin:
  Ikuspegi orokorra: Sail desberdinetako kideak bat eginda.
  Elementu konkretuetan lanketa eginda: Sail edo zerbitzu mailako prestakuntza landuta sail horretako edo hobetu beharreko elementu horretan ukitutako langileekin dagokion tailerrak eginda.
  Egiten ikasi dinamiketan oinarrituta, beharrezko elementuetan ekintzak eraginkortasunez martxan jartzeko, ezagutza desberdinak lantzeko, beti modu praktiko baten eta udal ikuspegira moldatuta.

2.- EZAUGARRIAK:

Kontratu honen helburua betetzeko, urtean 350 orduko laguntza teknikoa aurreikusten da.

Kontratu honen %80a lan presentzialetara bideratuta egongo da (280 ordu), teknikariekin lan egin, kudeaketa arloan dituzten egitekoetan laguntza eskaini, euren antolaketa moduetan aholkularitza eskaini, lan bileren kalitatean beharrezko aldaketak identifikatu eta bakarka zein udalak dituen egituren arabera lan taldean, beharrezko laguntza eskaintzen eta beharrezko formakuntza bideratzen.

Lan presentzial honen baitan, asistentzia eta formazioa aurreikusten dira, modu honetan antolatuta:

280 ordu urtean:
Hamabostero, gitxienez aditu bat Udalean arituko da 6 orduko lan jardunaldian **asistentzia lanak** bideratzen. Guztira 144 ordu urtero.

36 ordu urtero, beharrezko asistentzia lan osagarrietara bideratuko da, udalaren eraginkortasunean irabazteko beharrezkoa izan daitekeen lanketei ekiteko. Hauek ere modu presentzialean burutuko dira.

CSV: 07E50007029D00H6M5B9Y4R4F0

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E50007029D00H6M5B9Y4R4F0

Sinadurea eta datea
NAIARA ANASAGASTI MEÑAKA-ANTOLAKUNTZA TEKNIKARIA - 16/06/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/06/2021 13:47:44

EXPEDIENTE :: 2019KON_IS_0019
Datea: 15/11/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Formazioa, beti praktikoa izango da, lan eremura aplikatuta eta egiten ikasi formatupean. Hilero gitxienez 8 ordu formaziora bideratuko dira, ordu hauek beste era batera egituratuta modu eraginkorragoan erabili daitezkeela ikustekotan bildu edo sailkatu ahal izango dira. Guztira 100 ordu urtero.

Gainerako %20a (70 ordu), lanen prestaketa, beharrezko txosten zein agirien edukiak lantzera, idatzizko dokumentu zein ebaluazio txostenak prestatzera, azken finean lanaren gauzapen eraginkorrerako beharrezko zereginetara bideraturik egongo da.

Orduen eta egitekoen aurreikuspen hau, udalak une oro dituen beharrizanetara moldagarria izango da eta enpresak izendatutako koordinatzailearekin adostuta.

3.-LAN DINAMIKA:

Kontratu honen betekizunak, baldintzak eta egon daitezkeen zalantzak zein gatazkak aztertzeko Antolakuntzako teknikaria izango da Udaleko pertsona erantzulea eta udalaren zein enpresaren arteko koordinazio lana eramango duena.

Modu berean, esleipendunak, koordinatzaile bat izendatuko du, alderdi bien arteko komunikazioa errazteko eta lan honen egikaritzan egon daitezkeen gora behera guztiak aztertu eta bideratzeko.

Izendatutako koordinatzaileen artean, hileroko hartu emana bermatuko da.

Lan hau burutzeko eta langileen legez kanpoko lagapenak ekiditeko neurri gisa:
1.- Enpresa esleipendunak lan honi ekiteko dagozkion baliabide propioak izan beharko ditu; dagokigun lanaren helburua betetzeko gutxienez enpresako ordenagailu, internet konexio, telefono eta korreo elektronikoa enpresak berak jarrita.
2.- Udalak lan hau egingo duen enpresako pertsonarekin ez du zuzendaritza lanik egingo, lanaren kudeaketa eta jarraipena hilero koordinatzailearekin burutuko da.
3.- Lana burutuko duen enpresako pertsonak ez du kontratutik kanpoko bestelako funtziorik egingo.
4.- Udal sailen arteko harremanak udal langileek izango dituzte, ez zerbitzu kontratutako langileek, salbu kontratuan adierazten diren funtzioak burutzeko denean, azken kasu hauetan sailburuaren oniritzi formala beharko da.
5.- Udaletik kanpo, kontratu honen helbururako lanketarik zein bilerarik egin behar izatekotan, argi utziko da Udalari zerbitzuak ematen dion enpresaren ordezkaria dela eta aurkezpena Udalak egiteaz gain, langileak enpresako identifikazioa eroan beharko du.
6.- Oporrak eta ordutegi-egutegia enpresak berak aztertu eta antolatu beharko du Udalak dituen egiteko eta helburuak betetzeko; Udalak ez du honetan ezelako zerikusirik izango, zerbitzua etengabean bermatu beharko baita langileek izan ditzaketen oporraldi zein bajek zerbitzuan eragin gabe.

CSV: 07E50007029D00H6M5B9Y4R4F0

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E50007029D00H6M5B9Y4R4F0

Sinadurea eta datea
NAIARA ANASAGASTI MEÑAKA-ANTOLAKUNTZA TEKNIKARIA - 16/06/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/06/2021 13:47:44

EXPEDIENTE :: 2019KON_IS_0019
Datea: 15/11/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Kudeaketa Taldea, Zuzendaritza Batzordearekin elkar lanean, jarraipenerako organoa izango da.

Lanaren ondorioz sortzen diren dokumentu guztiak, euskaraz edo elebidun egon beharko dira. Bermeoko Udalaren jabetzakoak izango dira eta enpresa esleipendunak ezingo ditu gorde, ez kopiak jaso ezta hirugarrengoei laga, Udalari horren baimena eskatu gabe.

Kontratu honen amaieran eta egotekotan luzapen amaiera bakoitzean, Antolakuntzako teknikaria eta enpresa esleipendunaren koordinatzailea bildu eta lanaren balioztapena egingo dute.

Bermeon, 2021eko ekainak 7an

Antolakuntza, Informatika eta Kalidade Saila. Erzilla 6-8 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9115 Faxa: 94 688 2312
antolakuntza@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

CSV: 07E50007029D00H6M5B9Y4R4F0

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E50007029D00H6M5B9Y4R4F0

Sinadurea eta datea
NAIARA ANASAGASTI MEÑAKA-ANTOLAKUNTZA TEKNIKARIA - 16/06/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/06/2021 13:47:44

EXPEDIENTE :: 2019KON_IS_0019
Datea: 15/11/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia